

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Diputatuen Kontseiluak 2016ko azaroaren 22ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– Erabakiak:

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 766/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena Arabako lurralde historikoko zenbait toki erakunderi ObraTxikiak Egiteko 2017ko Programako laguntzak emateko deialdia.

Diputatuen Kontseiluaren 767/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei Auzo Harremanak Sustatzeko 2017ko Programako laguntzak emateko deialdia.

Diputatuen Kontseiluaren 768/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, zeinaren bidez kudeaketa batzorde bat eratzen baita bete ditzan martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuenak, Lozako Kontzejuko Administrazio Batzarrari egotzitako egitekoak.

Diputatuen Kontseiluaren 769/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena uztailearen 19ko 453/2016 Erabakian egindako hutsen zuzenketa. 453/2016 Erabakiaren bidez, baimena eman zitzaion Zerioko Administrazio Batzarrari mailegu bat hitzartzeko, "Batzar gela berria eta gizarte etxea" izeneko obra finantzatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 770/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena EHUren eta Tecnia Research&Innovation Fundazioaren artean berrikuntza eta ikerketa teknologikoa sustatzeko ekintzak egin eta industriara transferitzeko izenpetutako hitzarmena izenpetzea eta aldundiari dagokiona finantzatzea.

Diputatuen Kontseiluaren 771/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganberarekin Arabako ekonomiaren lehiakortasun jasangarria bermatzeko ekintzak egiteko izenpetutako hitzarmena izenpetzea eta aldundiari dagokiona finantzatzea.

Diputatuen Kontseiluaren 772/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganberarekin Industria 4.0 fabrikazio aurreratuko estrategia ekintzak egiteko izenpetutako hitzarmena izenpetzea eta aldundiari dagokiona finantzatzea.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 773/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena Cisco, Checkpoint, HPE eta F5 fabrikatzaileen aldundiko eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko gailuen parkearen eta sareko softwarearen mantentze zerbitzua urtebeterako prozedura ireki bidez kontratatze espedientea, gehienez ere 115.131,50 euro eta 9.801,- euroko aurrekontuarekin (BEZa barne), hurrenez hurren.

Diputatuen Kontseiluaren 774/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena 2017ko ekitaldirako aldundi honetan instalaturiko Oracle eta Fatwire programa informatikoen mantentze zerbitzua publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatze espedientea, 216.601,23 euroko zenbatekoaz (BEZa barne).

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 775/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena Erriberabaitiko Udalarekin hitzarmen bat izenpetzea, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 776/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena Erriberabaitiko Udalarekin hitzarmen bat izenpetzea, zerga gaietarako informazioa trukatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 777/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, baliorik gabe uzten duena azaroaren 8ko 725/2016 Erabakia, eta onartzen duena 194/2016 kreditu transferentziaren espediente, 123.050,- euroko zenbatekoaz, "Kanpoko lanak eta zerbitzuak" eta "Larrialdietarako Arabako funtsa" partidak funtsez hornitzeko. Eskatzailea: Diputatu Nagusiaren Saila.

Diputatuen Kontseiluaren 778/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena, Gizarte Zerbitzuen Sailak eskatuta, kreditua gaitzeko 34/2016 espediente, 1.238.063 eurokoa, "Gasteizko Udalaren Gizarte Zerbitzuen Zorrorako Erakunde arteko Funtsa" izeneko partida berrirako, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluarekiko 2105eko urriaren 14ko akordioa betetzearren.

Diputatuen Kontseiluaren 779/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena 36/2016 kreditu-gaitze espediente (zenbatekoa: 3.000.000,- euro) "INDESA 2010 SL" partida funtsez hornitzeko ekarpena handitzeko, zeina Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eskatu baitu.

Diputatuen Kontseiluaren 780/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena urriaren 4ko 643/2016 Erabakian egindako hutsa zuzentzea; beraz, Arrendondo abizenaren ordeztan Arrondo abizenak agertu behar du. Erabaki horren bidez, argazki funts bat ematen zioten dohaintzan Kaiet Estrada Gamarra jaunak, Goiuri Estrada Gamarra andreak eta Virginia Estrada Arrondo andreak foru aldundi honi.

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 781/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, ekarpen bat onartzen duena "Indesa 2010 SL" enpresaren aurreko ekitaldietako galeren zati bat ordaintzeko.

NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 782/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, partzialki ebazten duena partikularren mendietako basogintzarako laguntzen deialdia, ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretu bidez onartua (neurria: M08.6. Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean eta baso azalaren baso potentziala hobetzean inbertitzea).

Diputatuen Kontseiluaren 783/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, partzialki ebazten duena partikularren mendietako basogintzarako laguntzen deialdia, Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretu bidez onartua (neurria: M08. Basotzea eta baso azalera sortzea).

Diputatuen Kontseiluaren 784/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, partzialki ebazten duena partikularren mendietako basogintzarako laguntzen deialdia, ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretu bidez onartua (neurria: M08.4 Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea eta M08.3. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea).

Diputatuen Kontseiluaren 785/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, handitu egiten duena "Arabako Lurralde Historikoko baso suteak itzaltzeko eta horretan laguntzeko lanetarako makinak" kontratuaren aparteko luzapenari dagokion esleipena (kontratu hori ekainaren 28ko 416/2016 Erabakiaren bidez onartu zen).

Diputatuen Kontseiluaren 786/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena handitzea "Arabako Lurralde Historikoan baso suteak itzaltzeko langile taldea" kontratuaren aparteko luzapenari dagokion esleipena.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 787/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena Arabako landako bilketaguneen sareko hondakinak garraiatzeko zerbitzuaren kontratuan, urriaren 14ko 522/2014 Erabakiaren bidez Seula SLri esleituan, jarritako bermea itzultzearen behin betiko likidazioa.